

FUNTSEZKO JARDUERAK

Garapena eta funtzionamendu teknikoa

Proiektuaren jarduera nagusien artean aplikazioa eta webgunea sortzea dago, ondo funtzionamendu egokia sartzeko eta hori mantentzea. Horrek esan nahi du aplikazioa erraza, erabilgarria eta segurua izango dela, baita erabiltzaile kopurua handitzean ere ondo funtzionatuko duela. Oso garrantzitsua da etxebizitzak eta erabiltzaileak egiaztatzea, benetakoak eta fidagarriak direla ziurtatzeko, balorazioen eta profil egiaztatuen bidez.

Erabiltzaileak lortzea funtsezkoa da

Erabiltzaile gabe ez dago negozioirik, eta horretarako marketina eta komunikazioa ezinbestekoak dira, sare sozialen bidez, unibertsitateekin lankidetzan eta Erasmus aurkezpenetan aplikazioa ezagutarazteko.

Funtsezko bazkideak lortzea

Aplikazioak benetako balioa izan dezan. Horien artean daude: unibertsitateak eta goi-mailako hezkuntza zentroak, etxebizitzak jabeak eta inmobiliak, Erasmus eta nazioarteko ikasleen elkarteak, ordainketa-plataformak eta aseguruak eskaintzen duten enpresak, tokiko administrazioak eta erakunde publikoak. Bazkide hauek informazio fidagarria eskaintzen dute, aukerak zabaltzen dituzte eta konfiantza sortzen dute erabiltzaileen artean.

Finantza baliabideak lortzea

Hasierako fasean, finantza-erakundeek kredituak, inbertsioak eta laguntzak eskaintzen dituzte, eta Erasmus edo unibertsitateentzako programetako diru-laguntzak, adibidez, erasmus+ proiektuak ere erabil daitezke, plataformaren garapena eta martxan jartzeko.

Komunitatearen kudeaketa eta segurtasuna

Aplikazio barruko balorazioak, chat-a eta sor daitezkeen arazo edo gatazkak konpontzea sartzen da hor, erabiltzaileek seguru eta babestuta sentitu daitezen. Horrela, bezeroarentzako arreta funtsezkoa da, erabiltzaileei laguntza emateko, zalantzak argitzeko eta arazoak konpontzeko.

Hedapena, lankidetzak eta hobekuntza

Unibertsitateekin eta beste bazkideekin harremanak zaintzea ezinbestekoa da elkarlana sendotzeko eta proiektua leku gehiagotara zabaltzeko. Azkenik, datuen

azterketak garrantzi handia du, ikasleen beharrak hobeto ulertzeko, zerbitzua hobetzeko eta eskaintza edo gomendio egokiagoak egiteko.

Zerbitzu osagarriak: aseguraa, ordainketa seguruak, etxebizitza bilaketa eta osasun aguntza zerbitzuak sartzen dira, ikasleen esperientzia errazteko eta seguruagoa egiteko. Horrela, plataforma ez da soilik etxebizitza bilatze tresna bat, baizik eta ikasleentzako tresna integrala bihurtzen da, euren eguneroko bizitza errazteko eta seguruagoa egiteko.